

Galdutako altxorraren bila

Castillo Suarezen blogean irakurri dut: “Galdu egiten da haurtzaroa deserrian”. Eta burutik kendu ezinik nabil. Uste dut, nik neuk idatzi izan dudala haurtzaroa dela norberaren aberria. Orain ez dakit deserrian galtzen den haurtzaroa, edo haurtzaroa galtzean geratzen den bat deserrian trabatuta. Biak izan litezke. Deserrian bizi ziren nire pertsonaia batzuek umeekin oso tematuta ziruditen, hori bai. Esango nuke, umeak direla deserrian norberaren haurtzaroa topatzeko bidea. Haien haurtzaroaren eskutik berreskuratu daiteke norberarena, urruneko lurralde batean galdutakoa. (Hitz hauetan norbaitek umeak izateko apologia irakurri nahi balu, oharra: Umeek ez dute zertan norberarenak izan behar).

Nik karratu zuri-gorriak zituen poltsa batean galdu nuen lehen haurtzaroa etxe-aldaketa batean. Edo poltsa harekin. Poltsa hartan zer zegoen, intuizioak esaten dit: liburuak. Astiro-astiro egiten ditut loturak. Katarisia duela urte bat izan nuen, Bilbon euskarara itzulitako animaziozko film frantses bat semearekin ikusten nengoela: *Ernest & Celestine*. Pantailako irudi haiek –trazu arin batekin dantzatzen– eta pertsonaia haiek ezagutzen nituen. Nire memorian zeuden. Nire barruan. Etxean egoteko Ernesten bata eta Celestineren euritakoak aurkitu nituen, altxor handi baten lehen bitxiak aurkitu izan banitu bezala. Ernest hartzak eta Celestine saguak beste izen bat zuten nik –eta nire belaunaldiko haur askok– izandako Gabrielle Vincenten liburu euskaratuetan. Zesar eta Ernestinaren ipuinak poltsa zuri-gorrian galdu nituela jakin nuen Bilboko zinemako areto ilunean (akaso baten batek gordeta izango ditu).

Beste agerpen bat izan nuen geroago Berlinen, orduko hartan, Danimarkako



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

animaziozko film bat ikusten. Filmak aurrera egin ahala, eta umeek horman marraztu zuten errinozerontea gorpuztuaz batera, borratuta zirudien liburu baten istorioak gorputza hartu zuen nire barruan. Nagusiago nintzeneko beste liburu bat agertu zitzaidan, *Otto errinozerontea da*, berriz ere ustekabean.

Galdutako altxorrak aurkituz noan heinean, umetan irentsitako istorioen kalitatearen kontzientzia ere hartu dut. Itzulpen haiekin Europako haur literatura jarri ziguten eskuetan. Eta orduan hainbat klasiko irakurri gabe geratu banintzen, orain, umeekin, galdutako haurtzaroa berreskuratzeaz gain, bigarren haurtzaro alternatibo bat sortzeko aukera ere badaukat. (Bide batez, deserrian aberri berri bat eraikitzeke aukera ere badena). Azkenik. Astrid Lindgrenen istorioak irakurtzeko okasioa! Laster etorriko da Mariasun Landaren liburuen txanda ere bai!

Noski, interes propioen arabera auzeratzten ditut umei irakurtzen dizkiedan liburuak eta haiekin ikusten ditudan filmak. Baina proposamenak ere gus-tura onartzen ditut. (Seguruenez *Star Wars* ikusi beharko dut). Eta elkarrekin egiten dugu bidaia, abentura. Elkarrekin egiten dugu barre. Hitz egiten dugu gauza tristeez ere bai, gerraz adibidez. Izan direnez eta egun direnez. (Ezin utzi gaiari buruzko bi libururen gomen-dioa egin gabe: Leire Bilbaoren *Gerrak ez du izenik* eta Claude Dubois-en *Akim ihesi*).

Gauetan, haur literaturako saioen ostean, denbora eta energia gutxi gertzen zait beste irakurketa mota baten-tzako. Edo irakurketarekin zerikusirik ez duten, baina gauerako utzitako beste egitekoetarako. Baina aberria (ber) eraikitzeke duenak nekeak hartu behar dituela edozein euskaldunek ulertuko duelakoan nago... ■